

2016ko
Maiatza

JexuxArtze

KulturElkarteak



antolatuta...


2016ko udaberriko ekitaldiak







KULTUR AGENDA 2016ko maiatza

	Apirila, ostirala 22:00 SuteGIN	"BERRI ONA" PELIKULA	Apirilak 29
	Apirila, larunbata 09:00 Potxoenean	"SAGARRONDOTIK SAGARDORA" IKASTAROA	Apirilak 30
	Asteazkena 19:00 SuteGIN	"NESKATOAK" DOKUMENTALA	4
	Ostirala 18:00 Potxoenean	TAPER SEX FEMINISTA	6
	Ostirala 22:00 SuteGIN	"HEROIAK" ANTZEZLANA	6
	Larunbata 22:00 SuteGIN	JABIER MUGURUZAREN "TONETTI ANAJAK" DISKO AURKEZPENA	7
	Larunbata-Igandea 08:30 Oiaro kiroldegitik	BI EGUNETAKO MENDI IRTEERA: HERRI URRATS	7-8
	Igandea 15:00ak arte	TIPI TAPA PINTXO IBILBIDEA	8
	Igandea Egun osoko jaia	SAN IXIDRO EGUNA	15
	Igandea 10:00 Saizar sagardotegia	"SAGASTIAK KANTUAK" MIKEL OLANOREN EMANALDIA	15
	Astezkena 18:00 Ikastola gorrian	ELIKADURA NAHASTEAK: ANOREXIA ETA BULIMIA HITZALDIA	18
	Osteguna 11:00 Potxoenean	EUSKAL HERRIKO SAGARDOAREN IBILBIDE TURISTIKOAREN AURKEZPENA	19
	Osteguna 17:30 Bihurri Ludotekan	IXABEL AGIRRESAROBEN IPUIN KONTALARIA	19
	Igandea Kaxkoan	XXXV SAGARDO EGUNA	22
	Asteartetik - ostiralera	UDABERRI FESTA ZUBIETAN	24-27
	Larunbata 19:00 Mikel Laboa plazatik	KANTU JIRA	28
	Asteartea 17:00 Udarregi Ikastolan	IKASTOLAKO BERTSO JAIALDIA (LH5-LH6)	30

IKASTAROA

	Ekaina, asteazkena 09:00 Potxoenean	"SAGARRONDOTIK SAGARDORA" "SAGASTIEN UDAKO KIMAKETA, GAITZAK ETA IZURRITEAK" IKASTAROA
-----------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------

LEHIAKETA ETA DEIALDIAK

	NoaiaIn	UDAJOLASEN IZEN EMATEA	2-6
	Udal Erregistroan	SANTIXABELETAKO EGITARAU LEHIAKETA	20
	Potxoenean, Kiroldegian edo SuteGIN	NORK BOTAKO DU SANTIXABELETAKO TXUPINAZOAZ?	20
	e-mailez	URRUTIKO INTXAURRAK HANTALAU IZEN EMATEA	15

ERAKUSKETA

	SuteGiko erakusketa aretoan	SAGARDO IBAIAK, BIZITZA ITURRI	13-22
-----------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------	--------------------------------	-------



Usurbilgo Udala
Soziokultura Saila
Tel. 943 371 999
kultura@usurbil.eus
www.usurbil.eus

**Usurbil
Kultura**



Herritarren tresna
Usurbilgo Kultura zabaltzeko
kultura-usurbil.eus



SAGARDO IBAIAK, BIZITZA ITURRI

Lekua: Sutegiko erakusketa aretoa. **Datak:** maitzak 13tik 22ra

Ordutegia: asteazkenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara; larunbatean 12:00etik 13:30etara eta 18:00etatik 20:00etara, eta igandean 12:00etik 13:30etara.

Estatuko, probintziako eta udaletako artxiboetan egindako ikerketek erakutsi digute Oriá eta Urumea ibaiek, sagardoaren inguruko sekretu ugari gordetzen dituztela, eta bi bailara hauetako bizilagunen komunikazio eta harreman ekonomikoen antolaketa eta Gipuzkoako garapen historikoan berebiziko garrantzia izan zutela.

Antolatzaileak: Sagardoaren Lagunak eta Usurbilgo Udala

Sagardoaren Lurraldeak, Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo udalekin eta Donostiako Aquarium-ekin elkarlanean sustatutako erakusketa da.



UDAL LIBURUTEGIA



Goizez, 10:00-13:00	2	3	4	5	6	●	●
Astegunetan, 10:00-13:00 eta 16:00-19:30	9	10	11	12	13	●	●
Itxita ●	16	17	18	19	20	●	●
Goizez ●	23	24	25	26	27	●	●
	30	31					

Sutegi Eraikina · Irazu kalea, 14 - 20170 Usurbil

Tel.: 943 360 692 · www.liburutegiak.euskadi.eus/katalogobateratua

KZ-GUNEKO IKASTAROAK



IKASTARO ETA MINTEGIAK

Sare-Sozialak 2.0 (16 ordu)

02-11 16:00-18:00

Google Apps

Google Apps ikastaroa
(16 ordu)

12-23 16:00-18:00

Youtube ikastaroa (2 ordu)

24 16:00-18:00

Oinarrizko Internet (10 ordu)

25-31 16:00-18:00

Ofimatika- Software Libre (6 ordu)

04-06 16:00-18:00

URRUNEKO FORMAZIOA (gaztelaniaz)

Dropbox

Lan Bilaketa interneten

Andorid Sistema Eragilea

Instagram, argazkiak atera eta partekatu zure unerik onenak

Maiatzean Kz-gunea: Goizez: 16:00 / 20:00

Kale Nagusia 37 · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84

tutor.usurbil@kzguna.net · www.kzguna.eus



Zuen deialdiak zabaltzeko,
bidali hilaren 15a baino lehen
kultura.usurbil.eus
helbidera.

28

Larunbata 19:00 Mikel Laboa plazatik irteera



Kantu jira

Antolatzailea: Usurbilgo Euskal Kantu Taldea

Laguntzailea: Usurbilgo Udala

Herritar orok parte har dezake. Har ezazue liburuxka eta zatozte elkarrekin kantatzera.

30

Astelehena 17:00 Udarregi ikastolako erdiko aretoan



Ikastolako Bertso jaialdia (LH5 eta LH6)

Antolatzailea: Udarregi ikastola

Ikasturtero, Ahozkotasuna eta Bertsolaritza Programan barruan Bertso jaialdia eskaintzen dute LHko 5. eta 6. mailako ikasleek. Bikaina izaten da! Zatoz!

LEHIAKETA ETA DEIALDIAK

UDAJOLAS UDALEKU IREKIAN IZEN EMATEKO EPEA ZABALIK

Udajolasak udako aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz pasatzeko aukera eskaintzen du. Usurbilen erroldatutako 4-12 urte bitarteko haur eta gazteei zuzendua dago. Uztailaren 4an hasi eta 29an amaituko da. Orduetegi hau izango du: 09:30-13:30

Izen emateko epea: maiatzaren 2tik 6ra (biak barne) Noaia!ko egoitzan. 10:00-11:00 eta 16:00-18:00

Antolatzaileak: Noaia! eta Usurbilgo Udala



SANTIXABELETAKO EGITARAUAREN DISEINUA EGITEKO LEHIAKETA

Usurbilgo Udalak, Jai Batzordearekin elkarlanean, Santixabel jaietako egitarauaren diseinua egiteko lehiaketa martxan jarri du. Lanak maiatzaren 20a bitartean aurkez daitezke Usurbilgo Udaleko erregistroan.

Oinarriak: eskuratzeko: <http://kultura.usurbil.eus/> helbidean edo 943 371999 telefonora deituta.



NORK BOTAKO DU SANTIXABELETAKO TXUPINAZOA? PROPOSAMENAK JASOTZEKO EPEA ZABALIK

Santixabeletako Jai Batzordeak "Nork botako du txupinazoa?" ekintza jarri du martxan. Santixabel jaien hasiera ekitaldian nor omendu erabakitzeke herritarren proposamenak jaso nahi dira bertan. Proposamenak maiatzaren 20a baino lehenago helarazi behar dira kultura@usurbil.eus helbidera. Bestela, Sutegi liburutegian, Oiarde Kiroldegian edo Potxoenea Kultur Etxean jarri diren gutunontzietara ere zuzenean ekar daitezke. Nahikoa da orri batean proposamenaren berri ematea



"URRUTIKO INTXAURRAK HAMALAU" EMANALDIA ANTOLATZEKO DEIA

Orain arte aukerarik izan ez eta esketx bat antzeztu, bertsoak bota, abestu, argazkiak proiektatu edota txisteekin publikoa barrez leherrarazi nahi baduzue, zuena izango da oholza datozen herriko festen atarian.

"Urrutiko intxaurrak hamalau" izeneko emanaldia antolatu nahi du Jai Batzordeak, garai batean egiten zen erara. Oholza gainean usurbildarrei zer eskainia duzuela pentsatzen duzuenok, eman izena maiatzaren 15a baino lehen, ixabel.agirresarobe@gmail.com helbidean.

“Berri ona” pelikula

Antolatzailea: Jexux Artze Kultur Elkartea
Sarrerak: 5 € Lizardin aldez aurretik eta egun berean leihatilan.

Zuzendaria: Helena Taberna.

Aktoreak: Unax Ugalde, Barbara Goenaga, Guillermo Toledo, Gorka Aginagalde, Joseba Apaolaza, Mikel Tello, Klara Badiola.


Iraupena: 103 minutu.

Nafarroako langile-herri bateko parroko izendatu dute Migel, 1936ko matxinadaren egunean. Gerraren bidegabekerien eta ankerkerien lekuko da eta kaltetuen alde jokatzearabaki du, bere burua ere arriskuan jarrita.



Apirilak 30 - Ekainak 4

4. Sagastiak loretan ospakizuna



SAGARRONDOEN LORALDIAREN GORAZARRE EKIMENA

Apirilak 30, larunbata:

Potxoenean, 09:00 – 13:00

“Sagarrondotik Sagardora” ikastaroa: “Landareen bizimodua eta llogiaren eragina”, Xabier Akizu eta Jakoba Errekondoren eskutik. Alkartasuna Kooperatibaren izena eman behar da: 943 361 114 eta alkartasuna@usurbil.com

Maiatzak 15, igandea: Saizar Sagardotegian, 10:00 “Udaberria: Sagastiak loretan eta txoriak kantuan” Mikel Olanoren emanaldia. Ondoren, taldea Anaerrekara txorien kantuak entzutera joango da.

Maiatzak 15, igandea: San Ixidro Eguna

Egun osoko jaia. (Ikusi egitaraua aurrerago)

Maiatzak 19, osteguna: Potxoenean, 11:00etan

Euskal herriko Sagardoaren ibilbide turistikoaren aurkezpena.

Maiatzak 22, igandea: XXXV. Sagardo Eguna

Egun osoko jaia. (Ikusi egitaraua aurrerago)

Ekainak 4, larunbata: Potxoenean, 09:00 – 13:00

“Sagarrondotik sagardora” ikastaroan: Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak. Aitor Etxeandiaren eskutik. Alkartasuna Kooperatibaren izena eman behar da: 943.361114 eta alkartasuna@usurbil.com

Maiatzak 13-22: Sutegiko erakustaretoan

ERAKUSKETA: Sagardo ibaiak, bizitza iturri

Asteazkenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara; larunbatean 12:00etik 13:30etara eta 18:00etatik 20:00etara, eta igandean 12:00etik 13:30etara.

Antolatzaileak: Usurbilgo Sagardo Egunaren lagunak elkarte, Alkartasuna, Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba, Noaia! Kultur Elkartea, Usurbilgo Sagastia E.M., Sagardoaren Unibertsitatea, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea, Bizi Sagardoa eta Usurbilgo Udala.

4

Asteazkena

19:00

Sutegiko auditoriumean

"Neskatoak" dokumentala**Zuzendaria:** Jon Abril Olaetxea**Antolzailea:** Noaua! Kultur Elkartea **Sarrera:** Doan
1940 eta 1970 urteen artean Ipar Euskal Herrira eta Frantziako bertze hainbat tokitara lanera joandako emakumeen bizipenak jasotzen ditu Jon Abril Olaetxeak zuzendutako "Neskatoak" dokumentalak.

6

Ostirala

18:00-21:00

Potxoenean

Taper sex feminista:
grinak, jolasak eta jostailuak**Dinamizatzaileak:** Elena Jimenez (sexologoa) eta Goizeder Salegi (Goxo goxo erotika dendaren arduraduna).**Izen emateak:** sexuaholku@usurbil.eus / Telefonoak: 697 919 516 / 943 377110 Izen ematea doan da.**Antolzailea:** Udal Sexu Aholkularitza Gunea (Usurbilgo Udala)

6

JexuxArtze

Ostirala

22:00

Sutegiko auditorioan

**"Heroiak"** antzezlan**Antolzailea:** Jexux Artze Kultur Elkartea**Sarrera:** Lizardin 8€ alde zurretik, 10 € egun berean (leihatilan)**Aktoreak:** Ramon Agirre, Kandido Uranga eta Jose Ramon Soroz.**Zuzendaria:** Begoña Bilbao.

Hiru beterrano, gerran aritutako soldaduentzako zahar-egoitza batean daude, bizitzaren joanari so. René herrena dago, Gustavek agorafobia du eta Fernandek zorabioak izaten ditu sarri, buruan duen metraila pusketaren erruz... Gerraren ajeak.

Gure hiru heroiek zahar-egoitzatik ihes egitea erabaki dute. Nora ordea? Indotxinara? Aldameneko Herrira? Edo haizeak lizarrak inarosten dituen tontorrera?

7

JexuxArtze

Larunbata

22:00

Sutegiko auditorioan

**Jabier Muguruza** musika taldearen
"Tonetti anaiak" diska aurkezpena**Antolzailea:** Jexux Artze Kultur Elkartea**Sarrera:** Lizardin 8€ alde zurretik, 10 € egun berean (leihatilan)

2015ean argitaratutako Tonetti anaiak izenburua duen hamalagarren diskoa aurkeztuko digu Jabier Muguruzak. Alderdi musikalean, jazz ikutuko giroa topatuko dugu bertan. Helburu horrekin, Muguruzak estilo horretako artista handiak elkartu ditu, Mikel Azpiroz pianojolea, Ignasi Gonzalez kontrabaxua eta David Gomez bateria. Tempo lasaiak, sosegatuak, egokienak entzulearen belarriara bere istorio eder horiek kanta dituzten, geure baitako alderdirik intimoenarekin topo egiten dutenak. Jabier Muguruzak bilatzen zuen sonoritate naturala aurkituko duzu errezitaldian.

7-8

08:30

Oiardo Udal Kiroldegitik

Bi egunetako Mendi irteera: Ereñozu-Lesaka Lesaka-Senpere Herri Urrats 2016



Antolatzailea: Andatza mendi elkarte

Ibilbidea: Ereñozu-Lesaka: 6,5 ordu (maiatzak 7) · Lesaka-Senpere: 5,5 ordu (maiatzak 18)

Aterpea: Matxinbeltzenea (Lesaka) dutxa, afaria, loa eta gosaria. Aterperako toaila norberak eraman behar du

Non eman izena: Andatza Mendizaleen Kirol Taldean maiatzak 4 baino lehen.

Izena ematerakoan ordaindu behar da: 27€

Informazio gehiago: www.andatza.com

8

Igandea

15:00ak arte

tipi
tapa

TIPI TAPA

Antolatzailea: Hurbilago Usurbilgo Merkataritza eta Ostalarien Elkarte

Babeslea: Usurbilgo Udala

Sariak: Lehen saria: 150 €ko erosketa balea · **Bigarren saria:** Bi lagunentzako afaria
Pintxo berezien ibilbide gastronomikoa ondoko tabernetan: Aitzaga, Artzabal, Txiriboga, Txirristra eta Bordatxon.

15

Igandea



San Ixidro Eguna

10:00 Mikel Olanoren emanaldia Saizar sagardotegian (txori gaietan aditua)

Ondoren, taldea Anaerrekara txorien kantuak entzutera joango da.

10:30 Pilota partiduak (Usurbilgo lehen mailako txapelketako bi partidu)

11:00 Herriko ekoizleen Azokaren irekiera trikitilariekin (bertako produktuak salgai)

12:00 Meza Salbatore elizan.

12:30 Hamaiketako, bertsolariekin batera.

13:30 Bertso saioa: Amets Arzallus eta Elixabete Pagola.

14:30 Bertso-Bazkaria Saizar sagardotegian.

(txartelak salgai Alkartasuna Kooperatiban maiatzak 11 arte - Prezioa: 30 €)

17:30 Herri kirolak.

18:00 Kalejira erraldoi eta buruhandien konpartsarekin.

Oharra: Eguraldiaren arabera, goizeko ekitaldia herriko plazan edo Askatasuna plazan izan ditzakete

Antolatzailea: Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba

Laguntzaileak: Usurbilgo Udala eta Noaua!

18

Asteazkena

18:00

Ikastola gorrian

Hitzaldia: Elikadura nahasteak: anorexia eta bulimia

Antolatzailea: Hitz-aho Guraso elkarte

Acabe elkarteak emango du hitzaldia.



19

Osteguna 17:30 Bihurri ludotekan

Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa

Antolatzailea: Bihurri ludoteka

Nori zuzendua: 4-6 urte bitartekoei

22

Igandea Egun osoz Frontoian



XXXV. Sagardo Eguna

10:30 "Sagardotegia, gure kolejiyua" kantatu zuen Udarregi bertsolariaren oroimenez Remigio Mendiburuaren eskultura jarri zela 50 urte gogoratzeko ekitaldia.

Goizean zehar, frontoian herriko baseritarrak eta beste sagardogileak izango dira, Dema plazan Gipuzkoako sagardogileen elkarteko postuak jarriko dira eta Askatasuna plazan Eusko Labelean sartuta dauden sagardoak dastatzeko aukera izango da.

Pintxoak dastatzeko aukera ere izango da.

11:00 Potxoenea atarian duela 20 urte egindako Noaua!ko bazkideen argazkia berrituko dugu.

11:30 Hasiera ekitaldia Noaua!ren eskutik

18:00-21:00 "Elektro Patxaranga" kaleetan zehar.

24-27

Udaberri festa 2015 Zubietan

Antolatzailea: Zubiertako eskola txikiko guraso elkarte.

Egitaraua

Maiatzak 24, asteartea

16:30 Eskolako haurren marrazki erakusketa.

17:30 Ipuin kontaketa.

Baziren behin neska abenturazaleak eta mutil amesleriak" Kantukantoi taldea.

Maiatzak 25, asteazkena

17:00 Eskulanak: Txapak, gatza potoak, kareta, kafe kapsulekin eskulanak (koilareak, brotxeak, diademak)...

18:30 Apar festa eta ur globo gerra.

Maiatzak 26, osteguna

16:30 Merendola.

17:00 Puzgarriak eta trebetasun frogak.

19:00 Buruhandiak.

Maiatzak 27, ostirala

17:00 Zubieta antzerki taldeko ikuskizuna.

17:30 Jokoak: Aulki joko kooperatiboa, altxorraren bila, herri kirolak...

19:00 Afari-merienda eta ondoren disko festa.

28

Larunbata 12:00 Sutegiko auditoriumean



Muxurbil emanaldia

Antolatzailea: Muxurbil taldea **Sarrera:** Doan